

Ikasleekin lan egiteko gida laguntza

**Proposamena ikastetxeetan
gauzatzeko orientabide**

2015–2016 ikasturtea

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GAZTE IREKIA 3

Página

1 *Nori zuzentzen da ekimen hau?*

1 *Ekimenaren xedeak*

1 *Orientabide orokorrak*

3 *Denbormalizazioa*

3 *Ebaluazioa*

5 *Sarean ondo jokatzeko dekalogoia*

Nori zuzentzen da ekimen hau?

Ekimen honen hartzaileak Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleak dira. Ikastetxe bakoitzak erabakiko du zenbat taldek parte hartuko duten, eta beraz, zenbat proposamen ezberdin aurkeztuko diren. Edozein modutan, ikastalde bakoitzak proposamen bakarra egingo du.

Ekimenaren xedeak

- Ikasleen eztabaidarako eta ekimenerako gaitasuna bultzatzea, hiritar bezala proposamenetan eta erabakietan parte hartzeko dituzten aukerak jorratuz, ikasleak elkarbizitza demokratikorako prestatze aldera.
- Pertsona helduok gure gizartea hobetzeko ikasleen ekarpenak kontuan hartzea, gazteek munduaz duten ikuspegitik eta ideia berritzaileak sortzeko duten gaitasunetik ikasiz.

Proposamena gauzatzeko orientabide orokorrak

Ikastalde bakoitzak proposamen bakarra gauzatuko du, Lehendakariari zuzendutako proposamena, hain zuzen ere; horretarako, bideo ekoizpen bat erabiliko da euskarri gisa.

Irakasleak edo irakasle taldeak erabakiko du proposamena gauzatzeko zein arlotako saioak erabili, baina ondo txertatuko litzateke arlo hauetan jorratzen diren gai batzuetan:

• **Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera:**

o Arazoak saihesteko eta murrizteko aukerak proposatzea eta naturaren babesaren aldeko jarrerak izatea.

o Zenbait erakundetako aginte-organo nagusiak ezagutzea (udalak, autonomia-erkidegoak, Europar Batasuna, etab.), bai eta haien funtzioak ere;

o Parte-hartze demokratikoak eta zerbitzu publikoak kudeatzeak herritarrentzat garrantzia handia dutela ohartzea.

• **Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza:**

o Eguneroko bizitzan eta taldeko harremanetan autonomiaz eta erantzukizunez komunikatzea, adieraztea eta jokatzeta.

o Bizikidetzara-arauak proposatzea, ezartzea eta betetzea, gatazkari aurre egiteko eta elkarriketa eta bitartekotza erabiltzeko.

o Komunitate bateko kide sentitzea, horren dinamikak aztertzea eta norberaren eta gainerakoen ekarpenak aintzat hartzea, elkarren artean ulertzeko eta solidaritatea eta kohesio soziala errazteko.

o Pertsona guztien eskubide eta aukera-berdintasuna defendatzea.

• **Tutoretza:**

- o Gelaren antolamendurako eta funtzionamendurako jarduerak.
- o Harremanak egiteko trebetasunak: partekatzea, lankidetzak, elkarriketa, hitz egiteko txandak errespetatzea...
- o Gizarte-trebetasunak garatzeko ekintzak (ni eta besteak)
- o Gizarte-elkarreragina bilatzen dutenak
- o Sentimenduak, emozioak eta iritziak adieraztekoak
- o Gatazkak kudeatzeko estrategiak.

Beste aukera bat da diziplina ezberdinen arteko lana egitea, beste arlo batzuk ere inplikaturik -Plastika, Musika, ...- beti ere Informazio eta Komunikaziorako Teknologien aberastasun multi-mediatikoa kontuan hartuta.

Horrez gain, ekimen hau burutzeko jardueren bidez Oinarrizko Gaitasunen garapena bultzatuko da:

- **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna:** egingo diren jardueretan elkarriketa eta elkarreragina erabili beharko dute ikasleek. Horrez gain, azkeneko ekoizpena ahozko eta idatzizko testu bat izango da.

- **Matematikarako gaitasuna:** hainbat kasutan, ikasleek matematikako edukiak landuko dituzte, euren proposamenaren aspektu kuantitatiboak loturikoak bereziki.

- **Zientzia- teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna:** garapen industrialak edota teknologikoa aztertuz, osasunari lotutako gaiak jorratuz...

- **Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna:** informazioa bilatu, ikertu, hautatu eta antolatu, eta tresna digitalen bidez komunikatu.

- **Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna:** inguruari lotutako gaiak jorratuz eta elkarriketa eta lankidetzak sustatuz.

- **Giza- eta arte- kulturarako gaitasuna:** herriko adierazpen kulturalak aztertuz eta horiek aberasteko proposamenak eginez.

- **Ikasten ikasteko gaitasuna:** jarduerak planifikatuz, gauzatuz eta ebaluatuz, banaka zein taldean.

- **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna:** ikasleek jardueren inguruko erabakiak hartu behar izango dituzte.

Denboralizazioa

Proposamena garatzeko bost eskola-saio denbora nahikoa izan daitekeela aurreikusten da. Edozein modutan, kopuru hori arrazoi asko tarteko alda daiteke: ikastaldean ezaugarriak, ikastetxearen aukerak eta baliabideak, ...

Jarraian aurkezten da ekintzak gauzatzeko behar diren saioen egitura posible bat:

1. saioa:

- a. Ekimenaren nondik norakoen azalpena
- b. Ideia-jasa
- c. Eztabaida
- d. Erabakia

2. saioa: Talde-lana: aukeratutako gaiaren inguruko informazioa bilatu eta antolatu.

3. saioa: Gidoiaren prestaketa lana

4. saioa:

- a. Behin betiko gidoia
- b. Ikasleak aukeratu
- c. Entsegua

5. saioa:

- a. Bideoaren grabazioa
- b. Bideoaren edizioa hodeian
- c. Bideoa sareratu




Ebaluazioa

Eskolako beste jarduerak bezala, ekimen hau ebaluatua izan behar da. Lehiaketa bat izango denez, balorazio publiko bat izango du, bozkatze baten bidez jendeak bideorik onena hautatuko baitu. Halere, proposamen hori burutze aldera gelan ematen diren urratsak ere ebaluatu egin beharko ditugu.




Jarraian zenbait txantilo proposatzen dira, taldean egindako lanak baloratzeko zein ikasle bakoitzak bere burua ebaluatu dezan:

- Taldean ekoiztutako proposamenaren bideoa ebaluatzeko.
- Ikasleek ekimenean zehar taldean egin duten lana baloratzeko.
- Ikasle bakoitzak bere lana baloratu dezan.




Proposamenaren bideoa baloratzeko txantiloia

			
EDUKIA: - Erakargarria - Ulertzeko erreza			
ANTOLAMENDUA: - Ondo egituratuta dago			
AHOZKO AURKEZPENA - Argi ahoskatuta dago eta ondo ulertzen da			
BIDEO-EKOIZPENA - Kalitate ona du. - Erakargarria da eta ikuslearen arreta lortzen du.			

Talde lana baloratzeko dugu

			
Denok egin dugu gure ekarpena, eta interes handia agertu dugu.			
Lehendakariari proposamen bat egiteko aukera ilusio handiz bizi izan dugu.			
Taldekideok gizartean hobetu daitekeen alderdi bat identifikatu dugu eta aldaketak egiteko proposamen errealista bat egin diogu Lehendakariari.			
Gure proposamena egiteko aukera posible batzuk aztertu ditugu eta bideragarriena aukeratu dugu.			
Hizkuntza baikorra erabili dugu talde-lanean eta baita Lehendakariari egin diogun proposamenean ere.			
Tresnak eta materialak modu arduratsuan erabili ditugu.			

Nire lana baloratuko dut

			
Nire buruan konfiantza izan dut nire iritzia ematerakoan.			
Nire taldekideei galderak egiten dizkiet, proposamena adosteko eta ideia berriak sortzeko.			
Talde lanetan gustura aritu naiz eta ekintzetan gogoz parte hartu dut.			
Asko ikasi dut nire taldekideengandik.			
Bideo bat nola ekoizten den ikasi dut.			

Sarean modu egokian jokatzeko dekalogoia

1. Beti sen onaz jokatu.
2. Besteak begirunez tratatu.
3. Besteen lanak baloratzen ikasi.
4. Jarrera desegokiak ekidin.
5. Internetek entzun egiten du eta denok entzun nahi gaitu. Parte har ezazu!
6. Besteek zu entzutea nahi duzun moduan, zeuk ere besteak entzun.
7. Ez egin kasurik probokazioei. Neurritz jokatu.
8. Zeure iritzia eman dezakezu edozein gairi buruz, beti ere begirunez jokatzuz.
9. Eguneroko bizitzan gertatzen den moduan, Interneten egiten duzun guztiak bere ondorioak ditu.
10. Amaitzeko, zalantzak baldin badituzu, sen onaz jokatu berriz ere.